

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

3204

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 18koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Zumaian ETSren mantentze-eremu berria eraikitzeko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2024ko maiatzaren 7ko Ebazpenaren bidez, «Zumaian ETSren mantentze-eremu berria eraikitzeko proiektua» onetsi zen. Ebazpena 2024ko maiatzaren 23an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (100. zk.).

Zumaian ETSren mantentze-eremu berria eraikitzeko proiektuan mantentze-eremu berri bat egikaritzeko behar diren jarduketak zehazten dira. Eremu horrek ibilgailuentzako sarbidea eta materialak biltzeko eremu bat izango ditu.

Proiektatutako obrak igarotze- eta pilotze-gune bat eta bi mantentze-bide ditu, bata elektrifikatua eta bestea ez.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatieen zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze espedienteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen (abenduarien 19ko 26/2022 Legeak aldatuta) 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo tren azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeko proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko zatik deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berarekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan dituzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jendaurrean jartzea «Zumaian ETSren mantentze-eremu berria eraikitzeko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun baliouduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezela, okerrak baldin badago

2024ko uztailearen 3a, asteazkena

zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia-San Sebastián kalea 1 – Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Zumaiako udaletxeko iragarki taulan ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 18a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2024ko uztailaren 3a, asteazkena

ERANSKINA

Finka zk.	Katastroko erref. eta udalerrria	Jabea	Eragin mota (m ²)			Izaera
			Erabateko Desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako Okupazioa	
1	Zumaia	Euskal Trenbide Sarea	1273	0	0	Trenbidea
2	Zumaia	Lurzoruaren eta Ondarearen kudeaketako zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia	1744	0	926	Espaloia, belardia eta baratzea
3	05-124 Zumaia	Lurzoruaren eta Ondarearen kudeaketako zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia	34	0	30	Belardia eta baratzea